

Nik soruen asko lan in dot. Nik lan in dot behieki eta idiyeki, makinen, arien... eztakitena gustetu, eztotena entendittu nee biziyan izan da goldaaki lan ittea. Gue aitta izugarri izan da... e... labradore klasien langillea, eta nere ama de bei, primera komuniyua ein eta kasik goai bittartien, larogetabi urte dazka, bea fantzan urtien de nee ama patata ataatzen ibili zan. Eta nik lan asko, eta aurten de, neonek, lenbiziko patata jorrak denak neonek in ttut. Bigarrena de bei, eta artue de bei, eta erremolatxa de bei. Eta patata zeozer de, neonek ataa dot bakar-bakarra, nahiz bi seme ion da gizona, iyor molestatu bai. Eta ni, deseando. Goai, ezin dotelakos fan, alaba egun hotan eztakat etxen eta ezin dot etxetik ataa. Bea ala astelen hontan fan tzan, hillaete at eta piko pasatu du... osea nee gizona gaixo eotien, eta hure daolaiken, hure fateako al doten lan guzie in dot, zengatik ni, gaztetati hasi eta goai bittartien beti sorun ibili naizena...

Bueno, lan gutxina in dot iya ezkondu nintzenetik, esposatu eo eztakit zer esaten dan, bea ni, bestela gazte denboa guzia aitte ta amaaki lanien, nola basuen egurretan, bi pareeki iguel, nola mendiyen egurretan, eta holaxe, egur in, eta aitte aizkora bateki, eta ni beste bateki iguel, eta aitte galduko ote nintzen bildurraaki garraxis: "Martina, ze habil, nun habil? Kontesta zan!" "Hemen noi, aitta!" Eta igual ondoko txarren bat, neroi...e... arbol txarren bat botatzen sekua, eta aitte garraxis, zengatik gue aitta izan da toda la vida izutiye basuen da ibiltzeko, miñ hartzeko. Horra. Holaxen izan da gue biziye goai bittartien. Goai, hemendik aurrea eztakigu ze klasetaa jokatu beadeun. Eztakigu. Bea nik ilusio guziyaaki soroko lanetaako ta, ta goai bertan de bei esaten dot: "Zu ez bazaa trebe, al dotena nik inkoot, gizona" esaten dot. Horra.

- Gizakiyek lan gehiao, gizakiyek. Goai, etxen ez, etxe barruben emakumiek, honbre, bea etxetik kanpoa gizakiyek, gizona. Emakumiek... Emakumiek bai, etxetan ibiltzeko bai earki!.

- Bai, hire andre Patxikek lan gutxi itten dik eta, e? Hik ze itten dok? Fabriken inkook, eta auskelo zer, basora fan ta egurren batzuk, o kontubek, bea bestela ze? Alde batea ta bestea konejuen gisa lasterrien nor ibiltzen dok?"

- Eta laister asko in eta iyoa de allatzen ez!"

- Hao ixil-ixilla, etzakela holakoak esan. Eztuk aitzen. Ikusko huke hemen baleo, bai ikusko huke; Herriyen balin bada eta langillikena dok eta, eztana gelditzen minutu batien de.

- Bea andrea langillia baldin baa, gizona izurratzalia don.

- Hik esan dok! Hemen bajakontuk Patxika ikusko huke!

- Egia don hori. Hori askotan esan diñoat. Andre trankila at baldin baa, andrea, gizona de trankilo ibilen don, ez balin bada de. bea andria balin baa holako kaxkarra, holako... ze esan be

pa... letxe txarrekua... gizona de, harrek e...

- Letxetxarrekua! kafekonletxea, bai!... Baakik, Patxikai askotan alleatu nok esaten, goñatai, eta nee gizonai de bei, hoiiek biyek ezkondu baliatz, alkar jokan aspaldiyeen ionko uzkeke, bata besteai, zengati biyek ttattarrito atzuk dian. Bea beharrik gu beste pasta klase atekok gaituk, trankileokokok (sic), eta esaten duna esan, ez diou kaso eitten eta nahi deziena intzazie, ta yasta.

- Zengatik pentsatu goai, biziye bat dala bakarrik, bat, eta han galtzen balin baa re, edadee pai, hure eman bai lanien baia trankilo, in gauzak trankilidadiekin, jateko trankilo, iatekuen, juerga in behar badok trankilo, lanekuen da aittu bee itxuren da hola, ez... tximista bekala ez, tximista bekala ez, hori egiye dok, jode!!.

- ta ze, gehio ze esaten dok pa?

- Lengo zarrak euskeas, bea goaiko gaztiek... Goai, lehendi honuntza gaztiek e, gaztiek e gue euskera ez bea beste euskera at, goaiko modernidadekue baakie. Ta guk enkanbio, hemen dena, dena euskeas hitzeitten da, dena. Gutako erdeas hitzeittea da lan bat eittian gisa, soruen lana, lanen bat ari gaan bezala, igual iguala! Pentsatu ta, igual erdeas hizketan hasi eta euskeas iguak akaatu, Holaxe! zengatik nik esaten dotena etxen, umeei ta: nei, eskola, beti erdeas, ikasi deun pixke, eta hizketan bex beti euskeas, eta goaiko euskerau guk ez deu entenditzen. Nik esan iñoten dot, seme txikiyorri, esan iñoten dot: "ni hiltzea alleatzen banaiz zek baño len, nei ez geo rekordatoio auskaldunik iñ, e!" ta: "Ama, erre inko dakizu", eta nik: "erre, nei? zeeki bizi noela, nahiko erreik bizi nok!"

Lengo egunien, illoba Roxaritooki, nee gizonaaki hor giñoi, eta lo mismo, eta : "Tia, bea zu, ordia, auskaldune za!" eta: "Bei, ni auskaldun lekuben jaiua, bea nee eskol pixke ikes dotena nik erdeas. Eta zertako uzu? Goaiko auskerooi eztot entenditzen!. Leitzen hasi, eztakit leitzen euskeas, eta dakiten pixka erdeasien hobeki entenditzen dot. Hori Egiye da. Eta horra, hemen alkarreki askos hoeki entenditzen gaa euskeas ze... hizketan, e?... erdeas. eta enkanbio dirube kontatzeko de nik eztakit behintzat euskeas, auskaldune nahiz izan, zengatik eztaun eskolan ikasi. Dena ikes dau erdeas han, gutxiye a ikes dauna de ta... Dotriñe bex primera komuniyorako... Bueno: ion nitzen Uizin, goain lehengusube hotsain don horren etxen, eta etorri nitzen primera komuniyoa itteko bezperetan etorri nitzen. Eta dotriñea, klaro, preguntatu in zuuten, Don Cristobalek, apeza hure zeon Bakaikukua hemen da. Preguntatu zuuten eta esan non: "Oi! ni monjetan ion naiz eta nik eztakit euskeas, erdeas erakus dutie monjak". Eman zuuten zaplasteko at , Hara! Zeruko izarrak eta guzi ikus nittuna, e!!

Don Cristobal horrek. Ongi aspertuta utzi zuuten. Horra. Eta enkanbio geo, pues dena izan da, eztakit nola esan de, zengati

hemen auskeas ez zakienea, hoi... erdeas zakinik ez zuen primera komuniokuen... ez zuen ametitzen, apez horrek. Hemen bazan nee lehengusu bet ez zuna ametittu, eta... apez horrek berak, e? Ez zakielakos euskeas, eta Lezaunen in zuena primera komuniyua, bai. Eta oaiñiken bizi a apez hoi, eta lehengo egunien, fan zan astien, eztakit, atzo zortzi o gaur zortzi, hemen juntziyo at izan zan eta harren juntziyuen hemen izan zan apez hoi de, horra, nik enuen ikusi beia. Larogei ta at urte dazki. Juaninan itxin ion omen guen, izu Petra ikusten. "Lizarragan hauk etxek, hauk etxek!" itte emen zien, "hauk etxek; hemendik Ttunttunea fan ber naiz, Ttunttunea!". Hala esan zien izu Petrak. Bei.

Ba hemen etxe bakotxa dazkeu biñe puska, hiruna puska o hola, ezta? Ta denok dakeu deretxua herrik egurrek... e... egurre markatzen dunien etxeetaako, denoi iguales ematen dik, denoi iguales eta bat, hauzelanak itten ttuu oai , bi o hiru, ezta? Ta hauzelan, hauzelan esaten diou herriendako lanea debalde eta denok fan behar izaten dieu. Oai, gaixon batzuk balin badoi, perdonatu itten dakiyoek, ezta? Baia bestelas denak. Ta egurre aillegatzen denian e denai ematen dok, ta hori esaten dakiyok hauzelan. Eta hauzelanea fateko, lehen hotsaitten guen etxes-etxe, buruzagie esaten dakiyok, oai aguazilla esaten diore, baia len buruzagia. Buruzagia alkatiak bialtzen zien: "Bueno, eman zak parte biyer hauzelan dala holako tokitaa, halakotaa ta holakotaa". Eta faten guen buruzagie eta hasten guen herria punta atetik esaten etxes-etxe. Ni askotan alleatu noi Ttonttoneko benta hoi, zeola, ta ni hasten nin Antonetik; Antonekua, Luzioona, Mariaana, Bakotxenekua, Martiajoakiñena, Amezteikua, Xantuaana, Goikoetxeaana, Estebaneko, Jalkatxonekua, Etxetxuikua, Anttonioona, Marzonekua, Zarbenekua, Kaalttonekua, Pedro Txikiina, Usabiaana, Felizena, Kaxintana, geo Apezenekua...

Yo he trabajado mucho en el campo. He trabajado con las vacas y con los bueyes, a máquina, con la rastra... y lo que nunca me ha gustado, lo que nunca he aprendido a hacer es trabajar con el arado. Nuestro padre ha sido terrible... e... trabajando como labrador, y mi madre también, desde que hizo la primera comunión casi hasta ahora; mi madre tiene ochenta y dos años, pero incluso el año pasado anduvo recogiendo patatas. Y yo también he trabajado mucho, este año también, yo misma hice la primera escardada entera de las patatas. La segunda también, y el maíz y la remolacha también. Y de las patatas también algunas las recogí yo, yo misma sola, aunque tenga dos hijos y marido, sin molestar a nadie. Y yo, deseando. Ahora, porque no puedo ir, porque no tengo estos días a la hija en casa y no puedo salir de casa. La hija se ha ido este lunes, ha pasado un mes y pico... o sea mientras mi marido ha estado enfermo y la hija ha estado en casa, he hecho todo el trabajo posible antes de que se fuera, porque yo que he andado desde joven hasta hoy siempre en el campo...

Bueno, desde que me casé trabajé lo que menos, desde que me esposé o no sé como se dice, pero yo, si no, toda la juventud la pasé trabajando con mi padre y mi madre, haciendo leña tanto en el bosque, igual con dos pares, como en el monte, y así mismo, hacer la leña, el padre con un hacha y yo con otra de la misma manera, y el padre con miedo de que me perdiera me gritaba: "Martina, ¿qué tal, donde estás? ¡Contesta!" "Aquí estoy, padre!" Y a lo mejor estaba tirando un pequeño árbol cercano, yo misma... eh... tirando un pequeño árbol seco, y mi padre gritaba, porque nuestro padre ha tenido toda la vida mucho miedo de hacerse daño al andar en el bosque y eso. Y así. Así ha sido nuestra vida hasta el presente. Ahora, de aquí en adelante no sabemos cómo tendremos que actuar. No sabemos. Pero yo tengo toda la ilusión para los trabajos del campo y así, y ahora mismo incluso digo: "si tú no puedes, yo haré lo que pueda, hombre" digo. Y así.

- El hombre trabaja más, el hombre. Pero en casa no, dentro de casa la mujer, hombre, pero fuera de casa el hombre, el hombre. ¿Las mujeres... Las mujeres sí, para trabajar dentro de casa, muy bien!.

- Sí, tu mujer Patxika trabaja poco, ¿eh? ¿Tú, qué haces? Trabajarás en la fabrica, y a saber en qué, ir al bosque y hacer un poco de leña, y las cuentas, pero ¿por lo demás qué? ¿Quién anda por ahí corriendo como un conejo de un lado para otro?"

- ¡Y trabajar mucho y aprisa para no llegar a ningún sitio!, ¿no es así?

- Estate calladito, no digas eso. ¿No oyes?. Ya verías si estuviera aquí, sí, ya verías; es la más trabajadora que hay en el pueblo, y no para ni un momento.

- Pero si la mujer es trabajadora, el hombre es de esos que fastidia.

- ¡Pero qué has dicho! ¡Si la tuvieras al lado! ¡Si te pilla Patxika!

- Eso es verdad. Eso se lo he dicho muchas veces. Si la mujer es tranquila, la mujer, el hombre también andará tranquilo, aunque no lo sea. Pero si la mujer es de esas de mal genio, de esas... qué diría yo... de mala leche... el hombre también, él también...

- ¡De mala leche! ¡ya será café con leche!... Ya sabes, a Patxika ya he llegado a decirle, a la cuñada y a mi marido también, si esos dos se hubieran casado, ya hacía mucho tiempo que estarían a tortazos, uno contra el otro, porque los dos son unos gallitos. Pero más vale que nosotras somos de otro tipo de pasta, más tranquilas, y de las que digan lo que digan no hacemos caso, y dejamos que hagáis lo que queráis, y ya está.

- Porque piensa ahora que la vida es una, una sola, y que aunque se pierda, dejando a un lado la edad, hay que dedicarla a trabajar pero tranquilo, hacer las cosas con tranquilidad, comer tranquilo, a la hora de beber tranquilo, si tienes que hacer juerga tranquilo, en el trabajo también a tu ser, así, no... como el rayo, como el rayo no, eso es verdad, ¡¡jodé!!

- Y qué, ¿qué más tienes que decir?

- Los mayores de antes hablaban en euskera, pero los jóvenes de ahora... Sin embargo, de un tiempo a esta parte los jóvenes también, los jóvenes también saben euskera, el nuestro no, el moderno de ahora. Y nosotros en cambio, aquí siempre, siempre hablamos en euskera. Para nosotros hablar en castellano es como hacer un trabajo, como el trabajo del campo, como si estuviéramos haciendo algún trabajo, ¡igual, igual! Piensa, a lo mejor empezamos a hablar en castellano y terminamos en euskera, ¡así andamos! Porque es lo que yo digo en casa, a los críos y así: a mí en la escuela siempre me hablaron en castellano, el poco que aprendimos, y hablar, en cambio, siempre hemos hablado en euskera, y el euskera este de ahora nosotros no lo entendemos. Yo le suelo decir a mi hijo pequeño, le suelo decir: "si me llego a morir antes que vosotros, ¡a mí no me hagáis recordatorios en euskera, eh!",

y "Mamá, te quemarán" y yo "¿Quemarme a mí? Bastante quemada he vivido con vosotros.."

El otro día estando con mi sobrina Roxarito y mi marido lo mismo : " Pero tía, tu sabes euskera !" y "Sí, yo he nacido en un lugar euskaldun, pero la poca escuela que he tenido la he tenido en castellano. ¿Y qué quieres? ¡El euskera ese de ahora no lo entiendo! Empiezo a leer, no sé casi leer en euskera, y entiendo mejor el poco castellano que sé. Eso es verdad. Y mira, aquí nos entendemos mucho mejor hablando en euskera que... hablando, ¿eh?... en castellano. Y en cambio, yo por lo menos no sé contar el dinero en castellano, a pesar de ser euskaldun, aunque sea poco lo que hemos aprendido y... La doctrina para la primera comunión... Bueno: estuve en Uitzzi, en casa del primo este que ha llamado ahora, y vine la víspera de hacer la primera comunión. Y la doctrina, claro, me la preguntó Don Cristóbal, y es que aquí estaba ese cura, que era de Bakaiku. Me preguntó y le dije: "¡Oi!, yo he ido a colegio de monjas y no la sé en euskera, las monjas me han enseñado en castellano". Y me dio una torta, ¡fíjate! ¡Vi las estrellas, eh!

Ese Don Cristóbal. Me dejó bien harta. Fíjate. Y en cambio luego, pues todo ha sido, no sé como decirlo, porque aquí el que no sabía euskera, eso... el que sabía castellano no... para la primera comunión, ese cura no lo admitía para hacer la primera comunión. Aquí yo tuve un primo al que ese mismo cura no lo admitió, y... ese mismo cura, ¡eh! Porque no sabía vasco, e hizo la primera comunión en Lezaun, sí. Y todavía vive ese cura, y el otro día, la semana pasada, ayer en ocho u hoy en ocho, hubo aquí un funeral, y aquel cura estuvo en ese funeral, fíjate, aunque yo no lo vi. Tiene ochenta y un años. Debió estar en la casa de Juanita, para ver a la tía Petra. "¡Las casas de Lizarraga, menudas casas!" debía decir, "¡menudas casas!; ¡de aquí voy a ir a Ttunttunea, a Ttunttunea!" Eso dijo la tía Petra. Sí.

Pues aquí cada casa tiene dos partes, tres partes o así, ¿no es eso? Y todos tenemos derecho, cuando el pueblo marca los troncos... eh... la leña para casa, nos da a todos por igual, a todos por igual y lo mismo, ahora hacemos auzalanes, dos o tres, ¿no es eso? Y auzalan, auzalan le llamamos a trabajar gratis para el pueblo, y tenemos que ir todos. Hombre, si hay algunos enfermos, se les perdona, ¿no es eso? Pero si no todos. Y cuando llega la leña nos toca también a todos, y a eso le llamamos auzalan. Y antes el que llamamos nagusia (jefe), ahora le llaman alguacil, llamaba casa por casa para ir al auzalan. Al jefe lo mandaba el alcalde: "Bueno, da parte de que mañana habrá auzalan en tal sitio y en este y el otro sitio.". E iba el jefe y empezaba por una punta del pueblo diciendo casa por casa. Yo muchas veces he ido cuando

estaba aquella venta de Ttonttonea, y yo empiezo por casa de Antone: Antonekua, Luzioona, Mariaana, Bakotxenekua, Martiajoakinena, Amezteikua, Xantuaana, Goikoetxeaana, Estebaneko, Jalkatxonekua, Etxetxuikua, Anttoniona, Marzonekua, Zarbenekua, Kaalitonekua, Pedro Txikiina, Usabiaana, Felizena, Kaxintaana, luego Apezenekua.